

---

# Betizu behi arrazari buruzko lan batek lortu du euskarazko dibulgazio artikulua onenaren Neiker saria

(2021.05.07)

Betizu behi arrazari buruzko lan batek lortu du euskarazko dibulgazio artikulua onenaren CAF-Elhuyar sarietako NEIKER sari berezia.

Asier Alvite Arregui Zumaiakoa da, eta Betizu behi arrazaren ezaugarri genealogiko eta genomikoak ikertu ditu &ldquo;Betizua, Europako azken behi basatia, desagertzeaz&rdquo; izeneko artikuluan.

Euskal arrazarik zaharrena izanik, eta galtzeko arriskuan egonik, Betizu arraza laguntzeko beharra sentitu zuen. Artikulu honen bidez gizarteak arrazaren egoera ezagutu eta daukagun ondare kulturala baloratzea bilatzen du.

Artikulua

irakurtzeko: <https://aldizkaria.elhuyar.eus/gailibrean/betizua-europako-azken-behi-basatia-desagertzeaz/>

---

Artikulutik ateratako irudia: Betizu arrazako zezena.

Arg. Bravoynatural | Fotografia taurina/Alberto Barrios Torres